

ROL-JOKOA

Rol-jokoaren bidez jokalariek egoera edo ekintza bat bizitzen dute, eta ez bakarrik intelektuarki; modu fisiko eta emozionalean ere bai.

Behar diren materialak.

- Garatuko den egoeraren deskribapen zehatza (ekintza, lekua, denbora, egoera, xehetasunak, etab.).
- Egoerako paperak edo rolak. Egoeran parte hartzen duten pertsonaia eta interesen kopurua eta ezaugarriak. Jokalari batzuek begirale gisa hartuko dute parte; beren egitekoa oso argi eduki beharko dute, eta jokoan zehar oharrak hartuko dituzte.

Jarraitu beharreko pausoak.

1. Erabili beharreko teknika azalduko da eta rolak esleituko dira, begiraleenak barne. Dinamizatzailleak egoera aurkeztuko du eta jokalariei arauak azalduko dizkie; arauak zehatzak izango dira, baina ez diote partaideen sormenari trabarik jarriko. Errealismoa oso garrantzitsua da, eta jokalariek ezingo dute jokia txantxetan hartu, bestela teatralizazio bihurtuko baita. Bestalde, errealismo gehiegi egotea ere ez da komeni, jokia psikodrama bihurtu daitekeelako.
2. Rol bat esleitu zaien pertsonak gelatik irtengo dira, eta zenbait minutu emango dituzte pertsonaian sartzeko eta antzezpenean zehar nola jokatu duten erabakitzeko. Bitartean, begiraleei arreta zertan jarri behar duten eta nolako oharrak hartu behar dituzten azalduko zaie (aurkeztutako egoeraren eta rol-jokoaren helburuaren arabera).
3. Gela girotuko da eta pertsonaiei sartzeko eskatuko zaie, antzezpena has dadin.
4. Beharrezkoa bada, dinamizatzailleak jokia eten egingo du "geldi!" oihukatuz eta txalo bat emanaz (errealismo gehiegi dagoelako, jokia teatralizazioa bihurtu delako, edo denbora amaitu delako). Orduan, jokalari guztiak geldi geratuko dira, beren irudiari begiratuko diote eta emozioak sentituko dituzte. Nahi izanez gero, rol-jokoa errepikatu egingo da, baina paperak aldatuz.
5. Jokia amaitzen denean, ebaluazioa egingo da. Lehenik, rolak antzeztu dituztenek beren paperaren barruan nola sentitu diren azalduko dute (beren sentimenduak soilik; jokoan gertatutakoa ez da aztertuko). Sentimenduak deskribatu ondoren, dinamizatzailleak esango die une horretatik aurrera pertsonaiez hirugarren pertsonan hitz egingo dutela, jokalaria eta "jokatu" duen papera bereizteko.

Ebaluaziorako jarraibideak.

- Sentimenduak adieraziko dira.
- Begiraleek orokorrean ikusitakoa aipatuko dute.
- Antzezpenean parte hartu dutenek azalpenak emango dituzte. Rol edo rol-talde guztiek beren bizipenak kontatuko dituzte.
- Begiraleek alderdi zehatz batzuk aipatuko dituzte.
- Ebaluazioak rolei buruzkoak izango dira, ez pertsonei buruzkoak.
- Ondorioak aterako dira.

Oharra.

Rol-jokoa “laborategi” bat da. Nahi ez duenak ez du jokoa parte hartu beharrik. Teatralizazioak jokoa honda dezake, baina ez da arriskutsua; aldiz, jokoa psikodrama bilakatzen bada, gauzak okertu egin daitezke.